



Ebazpen honetan datu pertsonalak agertzen dira, interesdunak hala eskatu duelako, izan ere, argi eta garbi adierazi digu bere datuak agertzeko baimena ematen digula, 15/1999 Lege Organikoak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babestekoak aurreikusitako moduan.

Arartekoaren ebazpena, 2010eko uztailaren 5koa. Horren bidez, ikertutako gertakarien inguruan egin diren jarduerak biltzen dituzten barne espedienteen informazioari buruzko kexa-espedientea amaitzen da.

Aurrekariak

1. Osasun eta Kontsumo Saileko kontrataziorako administrazio-espediente jakin batzuk aztertzeke ikerketen eragina jasan zuen pertsona batek kexa bat aurkeztu zuen, ikerketa horiekin zerikusia duten hainbat alderdirekiko eta informazio tratamenduarekiko desadostasuna adierazteko, haren iritziz, bere ohorerako eskubidean eragina izan baitzuten. Baita bere errugabetasun-presuntzioan ere.
2. Komunikabideetan administrazioaren barne txostenen edukiak argitaratu dira, eta bertan hainbat gairi buruzko ondorioak bildu dira. Interesdunak adierazi zuenez, hala ere, gai horiek ez ziren behar bezala egiaztatu. Gainera, haren iritziz, argitaratutako informazioak biltzen ez zituen hainbat datu argitaratu izan balira, gertatutakoa beste modu batez uler zitekeen. Hona hemen argitaratutako informazio garrantzitsuenetariko batzuk, laburbilduta:

2009ko uztailan, El Mundo egunkariak Osasun eta Kontsumo Sailaren barne txosten bat aipatu zuen, eta haren balorazioetariko batzuk aurreratu zituen. Sailburuaren adierazpenak ere biltzen zituen, Justizia eta Herri Administrazio Sailak Herri Kontuen Euskal Epaitegiak kontu-ikuskapena egin arte itxarotea gomendatu zuela esanez. Horrela, emaitzen arabera, arazoa fiskaltzara bideratuko zen, horrek erantzukizun penalak zeuden edo ez zehaztu zezan.

Uztail horretan bertan, *Europa Press* agentziak ere adierazi zuen irregulartasunak egon zirela enpresa jakin bati osasunaren arloan finantzaketa pribatua emateko ekimenean, eta txostenean proposatzen dela kexa hau egin duenak eskuratu ahal izan zuen erantzukizunari buruzko ikerketa burutzea.

2010eko otsailan, komunikabide batek (El Mundo, otsailak 11) azaldu zuenez, Osasun eta Kontsumoko sailburuaren ustez, Eusko Jaurlaritzako zerbitzu juridikoek ekintzak garatu behar dituzte, aipatutako enpresaren zerbitzuen emakidan prebarikazio zantzuak zeudela ikusi ondoren. Proposamen hori Eusko Legebiltzarreko Osasun eta Kontsumo Sailak





egindako bigarren txostenean biltzen dela gaineratu du. Bertan, 2009ko urriaren 30eko osoko bilkuran egindako bozketan, ikerketa bati ekitea eta horri zegokion batzordea eratzea erabaki zen. Batzorde horren helburua Osasun Saileko osasun-zerbitzuak kontratatzean antzemandako irregulartasunak ikertzea da, eta baita ikertutako gertakarietatik ondorioztatutako erantzukizun politikoak zehazteko garrantzitsutzat jotzen diren alderdiak aztertzea ere.

Araubide Juridikoko sailburuordetzaren txosten bat aipatzen da, Justizia eta Herri Administrazio Sailekoa. Berriak dioenez, txosten horrek adierazi du gertakariak prebarikazio delitu baten osagarri izan daitezkeela. Era berean adierazi duenez, zantzu horiek egon arren, sailburuordetzak 2009ko abenduaren 14ean Osasun eta Kontsumo Sailari zenbait informazio osagarri ezagutu arte itxarotea gomendatu zion, auzitegira joateko aukera zehazte aldera.

Azaldu du, Osasun eta Kontsumo sailburuaren datu osagarri horiek bildu ondoren, beharrezko ekintza legalei ekitea egokitzen jo zuela.

Berri horrek legebiltzarreko ikerketa batzordeko buruaren adierazpena ere biltzen du. Bertan, desadostasuna adierazten du informazio hori aipatutako batzordearen eskuetan egon aurretik isilean eman izanagatik.

Aurtengo otsailean gainera, administrazioaren barne txostenetako edukiak berriz ere argitaratu dira (Araubide Juridikoko sailburuordetzakoak), eta bertan, prebarikazio delitu bat dela-eta ekintza penalak hasteko zantzu nahikoak daudela baieztatu da. 2010eko otsailaren 11ko El País egunkariak adierazitakoaren arabera "Txostena zorrotza da prebarikazio zantzuei dagokienez, baina Elorriagaren aurkako ekintza penalak hasi aurretik, ofizioz berrikusteko espedienteak aurrera egin arte itxoitea gomendatzen du. Zalantzen artean aipatzekoa da Elorriagaren mende zegoen zuzendaritzaren dokumentu bat, haren sinadurarik ez badu ere, osasun baimena lortzeko beharrekiko dauden zalantzak edo nahastea adierazten duena".

Bi egun geroago, otsailaren 13an, El País egunkariak argitaratu zuen administrazioak txosten berri bat eskatuko zuela kasua fiskalari bidali aurretik, eta Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoari kontsultatzeko beharrik ez duela aipatu zuen.

2010eko maiatzaren 6ko El Paísek argitaratu zuen gobernuak fiskaltzara bidali zuela bere barne ikerketaren emaitza. Adierazitakoaren arabera, administrazioak orain egiaztatu du José Ramón Elorriaga Zubiagirrek enpresa esleipendunarentzat baimen bat sinatu zuela, legearen arabera ezarritako prozeduratik kanpo.





Maiatzaren 14ko El Mundok Herri Kontuen Euskal Epaitegiak onartutako barne txostenaren edukia biltzen du. Aldebiko espediente bat irekiko zela erabaki aurretiko txostena da.

Maiatzaren 29an, El Paísek legebiltzarreko ikerketa batzorde bereziaren buruaren adierazpenak bildu zituen. Bertan adierazitakoaren arabera, une horretan informazio nahikoa zegoen erantzukizun politikoen arazketa aurrera eramán ahal izateko.

3. Kexa honetan hainbat atal antzeman ditugu: a) egindako barne ikerketari buruzko datuak prentsan argitaratzea, b) burututako ikerketen oinarriari buruz argitaratutako emaitzen edukia eta c) erakunde publikoetako ordezkarien adierazpen batzuen bidez erreklamatzaileri egotzitakoak eta komunikabideek ikerketako barne txostenak eskuratzeko izan duten aukera.

Oinarri honekin, maiatzeko 7ko idazki bidez, Osasun eta Kontsumo Sailera jo genuen horren inguruan informazioa eskain ziezagun.

Gure informazio-eskaera aurrekari honen hasieran aipatutakoetatik c) atalean oinarritu zen. a) eta b) atalei dagokienez, gure esku-hartzea baldintzatzen zuten arazoak antzeman genituen.

a) atalari dagokionez –egindako barne ikerketari buruzko datuak prentsan argitaratzea–, kontuan hartu genuen, komunikabide pribatuak izanagatik, hasiera batean gure eskumenetatik kanpo geratzen zela argitaratutakoak ohorerako eskubidea urratu duen edo ez adieraztea.

b) atalari dagokionez, ikerketaren emaitzen edukiari buruzkoa, interesdunak kexan adierazi zuenez, eta hainbat erakunde publikoetako zenbait organok azaldutakoari kontrajarriz, ez zen ekintza irregularrik egon aztertutako kontratua esleitzeko prozeduran.

Azken kontu horrek gaiaren oinarrian eragina dauka eta, aurretiazko barne diligentziak burutu ondoren, administrazioaren erantzukizuna eragin dezaketela pentsatzen bada, balorazioa administrazio espediente egokiaren eremuan egin behar dela uste dugu; erantzukizun penala egon daitekeela antzematen bada, ordea, justizia auzitegietan egin behar da.

Ez dugu iritzi elementu nahikorik gai guztian eragina duen alderdi honi buruzko balorazioa egiteko eta, kontraesan-printzipioari jarraiki, interesdunak, hari dagozkion prozedurak izapidetzean, aukera izango du bere iritzia azaldu eta defendatzeko.





Duela gutxi argitaratutakotik ondoriozta daitekeen moduan, (maiatzaren 6an, El País-en), Eusko Jaurlaritzak bere aldetik fiskaltzari egindako ikerketa jardueren berri eman izan balio, hizpide dugun gai gure eskumenetik kanpo geratuko litzateke. Izan ere, otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak ez du aztertuko epailearen ebazpena jasotzeke duten kexarik.

Hirugarren atalari dagokionez, –erakunde publikoetako arduradunen adierazpenak eta komunikabideak barne txostenetara heltzea–, interesduna adierazpen horietako batzuetan egin diren egozpenez kexatu da, izan ere, ohorerako eskubideak eskatzen duen muga gainditu dute.

Kexa handitu egin du eta salatu du erakunde publikoek komunikabideei informazio hori eskaini izana, argitaratzerakoan bere eskubidean sartzera lagundu baita.

Kexaren alderdi hori baloratzean gogoan izan genuen garrantzi publikoa duten funtzioak egiten dituztenek ikerketa baten eragozpenak jasatera derrigortuta egon daitezkeela. Horrez gain, aintzat hartu genuen administrazio espediente bat hasteak eta hedatzeak ez duela zertan ekarri ohorerako eskubidea urratzen duen jarduerarik.

Beraz, gomendagarri dirudi oreka bilatzea Alde batetik, funtzionario izateak dakartzan mugak, egon daitezkeen interes publikoko arrazoiekin batera, eta bestetik, bere ohorerako eskubidea.

Kasu bakoitzean jokoan dauden eskubideak, izan ere, ez dago jarduera publikoen interes orokorrik alderdietako interesdunek informazioa ez bahetu izana justifikatzen duenik, balantzan jartzen dituzten adierazpenek oreka hori eman diezagukete, eta hori, era berean, komunikabideei emandako informazioetan islatu beharko litzateke.

Kexa ikuspuntu honetatik aztertuta, gure eskaera azken atal honen (c) atala) informazioan oinarrituko dugu.

4. Ekainaren 4an Osasun eta Kontsumo sailaren erantzuna jaso genuen eta haren edukia transkribatu dugu:

“Las declaraciones del Departamento de Sanidad y Consumo a los medios de comunicación han estado siempre conducidas por el criterio de prudencia y máximo respeto a la presunción de inocencia de las personas investigadas. Al mismo tiempo, es evidente que la actuación de estas personas figura en los distintos expedientes de investigación



practicados, tanto por el Departamento de Sanidad y Consumo, como por otras instancias del gobierno y Parlamento Vasco, las cuales son públicas. Estamos por tanto ante un equilibrio entre la necesaria transparencia de las actuaciones públicas y el derecho legítimo de cualquier ciudadano a su presunción de inocencia, equilibrio que el Departamento ha tenido por norma en todas y en cada una de sus declaraciones.

La cuestión sobre las filtraciones de documentación ha sido debidamente respondida al Parlamento Vasco. Resulta que todas las actuaciones del Departamento de Sanidad y Consumo han sido practicadas con el máximo sigilo, no habiéndose trasladado a los medios de comunicación ninguna información oficial antes de haber finalizado su procedimiento. Todas estas actuaciones, una vez practicadas, han sido trasladadas al Parlamento Vasco con indicación expresa, en algunos casos, de la conveniencia de un manejo lo más discreto posible de las mismas por contener datos de carácter personal. El hecho de que hayan sido publicadas de manera simultánea o incluso algo antes de su llegada al Parlamento Vasco ya ha sido objeto de pregunta y respuesta parlamentaria, como ha sido indicado, por lo que el Departamento ha tenido la oportunidad de expresar su opinión y posición al respecto.

Conviene señalar, no obstante, que en la página web del departamento resulta públicamente accesible tanto respuestas e informaciones al respecto enviadas por este Departamento, como transcripciones de sesiones de los Plenos y Comisiones en las que se han abordado en extenso esta temática.”

Gogoetak

1. Guk hausnartu beharreko gaien, interesdunak, ikertutako gertakarietan funtzio publikoak burutuz parte hartu zuenak, ados ez dagoela adierazi du, administrazioak gauzatutako ikerketen informazioari emandako tratamenduak bere ohorerako eskubidean eragina izan duela irizten baitu.

Auzitegien doktrinaren arabera, ohorerako eskubidea ahuldu daiteke adierazpen eta informaziorako askatasunen kanpoko muga gisa, haren titularrek funtzio publikoak betetzen dituztenean eta ikertutako jokamoldeetako protagonista direnean.



Beraz, kexagile honen lanpostuaren funtzioak eta kasuak sortu duen interes publikoa kontuan hartzeko elementuak dira, barne ikerketei eman zaien publikitate dela-eta jasan duen esku-sartzea justifikaturik ote dagoen baloratzean.

2. Kexa eremu horretan kokatuta, Osasun eta Kontsumo Sailari egin diogun informazio-eskaeran adierazi diogu, langile publiko batek, lotura-harreman berezia dela-eta, ikerketa baten eragozpenak jaso behar izan ditzake. Horrez gain, aintzat hartu dugu administrazio espediente bat hasteak eta hedatzeak ez duela nahitaez zertan ekarri ohorerako eskubidea urratzen duen jarduerarik.

Hainbat eskubideren artean gertatzen den gatazka honek, banakakoak batzuk (ohorerako eskubidea, adibidez) eta gizarte mailakoak bestiek (informatzeko eskubidea, esaterako), eskubideak neurtzera behartzen gaitu. Azterketa hori egitean, kontuan hartu behar dugu langile publikoa izatea nolabaiteko zama izan daitekeela interesdunarentzat tartean garrantzi edo interes publikoko arrazoiak daudenean.

Egin beharreko neurketa horri dagokionez, kasu bakoitzean hizpide diren eskubideak haztatzen dituzten adierazpenek oreka lortzen lagundu zezaketela aipatzen genuen, eta oreka hori komunikabideei eskainitako informazioetan era berean islatuko zela.

lido horri jarraiki, balantza alde batera edo bestera mugitzerakoan, adierazgarria da jakitea komunikabideei gertakari interesgarrien inguruko informazioa ematen dion berri aseptiko baten aurrean gauden, edo administrazioaren barne txostenetako datuei buruzko informazio zehatzaren aurrean.

Bestalde, ezin dugu ahaztu jarduerak errugabea delako adierazpena eman dezaketela emaitza gisa. Hori dela eta, kontuan hartzekoa da errugabetasun-presuntzioa ere.

3. Aplikazio orokorreko arau horietatik abiatuta, egoera bakoitzean baldintzak aldatzen dira, eta beraz, beharrezkoa da kasu bakoitzeko neurketa egitea. Ezin dugu ustetzat eman informatzeko eskubidea beti ohorerako eskubidearen gainetik dagoenik.

Eskubide horiek ez daude hierarkia baten arabera antolatuta, elkarren arteko eragina izan dezakete eta euren inguruko baldintzen arabera neurtu behar dira. Hori dela eta, jardueren legezkotasuna baldintza horiekin duten harremanaren arabera izango da.

Kasu honetan aurkitu ditugun hainbat baldintzek, gure ustez, zalantzak piztu dituzte eragindako erakunde publikoek ikerketen inguruko informazioari emandako tratamenduaren inguruan: a) barne txostenetan oinarritutako





informazioa eskaini da hainbat hilabetetan zehar eta bitartean ez da horren aurkako inolako prozesurik hasi, b) iragarritako egoztei buruzko frogen zantzuak zeudela zioten informazioetariko batzuek adierazi dute egozte horien inguruko zalantzak egon direla funtsezko zenbait kontutan.

4. Informatzeko eskubideaz gain beste batzuk egoteagatik eskubide horiek neurtzea gomendatzen bada, prozesu batean zehar eta informazioa mugatuz, zuhurtasuna handiagoa izan beharko litzateke aurreko faseetan.

Horrekin guztiarekin ez dugu esan nahi interes orokorreko informazio guztia mugatu behar denik, baina zuhurtziaz jokatu behar da eta, bere kasuan, jarduerari emandako garrantziak ikertutako gertakarien inguruan garatu diren ekintzekin bat egin behar du. Gure ustez, berriz, ez da halakorik gertatu, prozesu administratibo edo judizial bat hasteko neurririk hartu gabe igaro den denbora kontuan hartzen badugu.

Hizpide ditugun gertakariak ikertzeko aurrera eraman diren jarduerak –2009ko uztailetik 2010eko maiatzera arte, fiskaltzara bidaliko dela adierazten denean– barne izaera izan dute, baina, aurrekarietan bildu ditugun argitalpenek, berriz, barne txosten bakoitzaren informazioa zehatz-mehatz eskuratu ahal izan dela adierazi dute.

Ezkutuko barne informazioak aurretiko jarduerako izaera dauka eta ez da prozesu baten parte, hainbestera non ezkutuko informazio hori existitzeak ez du zehazten nahitaez ireki behar denik.

Fase batean –denboran luze irauten duenean– izapideak eta barne ikerketak eta txostenak bakarrik egon badira, kontraesaneko prozesurik egon ez bada eta, beraz, administrazio ebazpenik eta kondena-epairik egon ez bada, interesdunaren errugabetasun-presuntzioa eta ohorerako eskubidea hobe babestu behar izan ziren, eskaini den informazioa mugatuz.

Informazio horri dagokionez, Osasun eta Kontsumo Sailaren erantzunean transkribatu dugunez, nabarmena da pertsona horien jardura bilduta dagoela, bai Osasun eta Kontsumo Sailak bai Eusko Jaurlaritza eta Legebiltzarraren beste erakunde publiko batzuek garatutako ikerketa-espedienteetan.

Prentsak emandako informazioak hala izan zela adierazi badigu ere, ez gatoz bat euren publizitatea ikertutako jardueren naturaren ondorio delako ideiarekin.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, erantzunean esan bezala espediente horietan interesduna agertzen dela egia izanda, ikerketarako barne espedienteak direla aipatu dugu, eta izaera horrek mugak ezarri beharko lituzke gauzatutako jardueri buruzko informazioa eskaintzerako orduan. Interesdunarekin horien inguruko egiaztapenik egin ez izana funtsezkoa da





egin genuen balorazio honetan, informazioa mugatu behar izan zela genionean.

Legebiltzarreko batzordearen ikerketen publizitateari dagokionez ere, ezin gara ados egon erantzunean adierazitakoarekin, Eusko Legebiltzarren Araudiak 60.5. artikuluan adierazitakoari eusten badiogu, izan ere, horren arabera, ikerketa batzordeen bileren eta erabakien edukia isilpekoa izango da.

5. Pertsonengan eragina duten ezkutuko espediente edo txostenen naturari buruzko aurreko gogoetek beste baldintza baten eragina izan dute, hain zuzen ere, kontrastaketa prozesu bat gauzatzeko benetako urrats bat eman den arte igaro den denboraren eragina.

Lehen barne txostena amaitu zen une beretik, hau da, 2009ko uztailetik, hainbat hilabete igaro ziren interesdunak bere funtzioak betetzean eskuratu ahal izan zuen erantzukizuna zehazteko prozesurik hasi gabe.

Gure ustez, egoera hori nabarmenago hartu behar izan zen kontuan eta, interesdunaren ohorerako eskubidearekin neurtzerakoan, informatzeko eskubideak protagonismo gutxiago merezi zuen.

6. Ohorerako eskubidea zehaztugabeko kontzeptu bat da, kasuan kasuko baldintzen arabera aztertu behar da eta ez da erraza izango erasan juridikoak gertatu ote diren ondorioztatzea.

Ezkutuko txostena egin ondoren adierazitako larritasunarekin bat datorren prozesu bat ireki izan balitz, hasiera batean kasu honetan bezain besteko denbora galdu izan gabe, balorazioa ez litzateke izango hizpide ditugun baldintzak aztertu ondoren hemen adierazi duguna.

Ikerketen ezkutuko izaerari eta prozesu bat modu eraginkorrean bultzatu arte iragandako denborari buruzko baldintza horiekin batera, aurrekarietan bildu dugun informazioan antzematen diren hainbat datutan oinarrituz, interesdunaren jarrera adierazitako prebarikazioko tipo penalarekin bat egiterakoan zalantzak egon direla pentsa daiteke.

Zalantza horiek egon arren, barne txostenen informazioa ere eskaini da fiskaltzara bidaliko zela erabaki aurretik.

Gauzak horrela, aurrekarietan adierazi dugun moduan, 2010eko otsailaren 11ko El País egunkariak adierazitakoaren arabera "El informe se muestra tajante en cuanto a los indicios de prevaricación, pero aconseja esperar a que el expediente de revisión de oficio avance para emprender acciones penales, contra Elorriaga. Entre las dudas destaca un documento de la dirección que encabezaba Elorriaga, aunque sin firma de éste, que indica las dudas o confusión sobre la necesidad de la autorización sanitaria."





2010eko otsailaren 11n, El Mundok, Osasun eta Kontsumoko sailburuaren ustez, Eusko Jaurlaritzako zerbitzu juridikoek ekintzak garatu behar dituztela adierazteaz gain, informazio gehiago ematen du, hain zuzen ere, zantzuak hauteman zituzten arren, 2009ko abenduaren 14an, Araubide Juridikoko sailburuordeak Osasun eta Kontsumo Sailari gomendatu ziola, zenbait informazio osagarri jaso arte itxoin zezan auzitegira joateko bideragarritasuna zehazte aldera.

Berri horietatik, beraz, ondoriozta dezakegu, liskar egoera horretan, administrazioak zalantzak izan dituela ikertutako jokamoldeak adierazitako tipo penalarekin bat ote datorren erabakitzerakoan.

Kontrastaketa prozesurik egon ez dela adieraztean ez dugu, inolaz ere, barnean egindako izapideek izan dezaketen eraginkortasuna alde batera utzi nahi.

Baina barneko informazio horiek zalantzak egon daitezkeela iradokitzen dutenean, eta tipifikatutako jokamoldeekin bat egin dezaten sortu diren galderak erantzuteko ikerketa osagarriak behar direnean, kontuan hartuta, beste hainbat izapideren artean, ikertutako kontratuak jaso zituen enpresaren baimena ofizioz ezeztatzeko prozesuaren emaitza eta Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoaren txostenarena kasua fiskaltzara bidali baino lehen itxoitera eraman gaituzten jokamoldeak izan direla, pentsa genezake interesdunaren ohorerako eskubidearen eta interes orokorreko gaiei buruz informatzeko eskubidearen arteko neurketa ez dela egokia izan; eta horren guztiaren ondorioz, ohorerako eskubideak izan duen eragina funtzio publikoak bete izanaren eta gertakarien garrantziaren zama konsubstanziala baino haragokoa izan da.

7. Adierazi dugun moduan, interesdunak bere kexan adierazi du ez dela bere errugabetasun-presuntzioa errespetatu eta defentsa-gabezia sortu dela.

Pentsa dezakegu, ikuspuntu juridiko zorrotz batetik begiratuta, errugabetasun-presuntzioa, edo defentsa-gabezia, zehapen-prozedura judicial edo administratibo bati buruz ari garenean bakarrik urratzen direla.

Ikuspuntu horretatik ez liteke erraza izango esatea, modu ukaezinean behintzat, errugabetasun-presuntziorako edo defentsarako eskubidea urratu direnik, ez baita berez erasan horiekin lotutako prozesurik izapidetu kexa hau aurkeztu ondoren adierazitako fiskaltzarako helarazpena halakotzat jo ezean.

Baina, errugabetasun-presuntzioaren printzipioak hasiera batean pertsona oro errugabea da, prozesua egon edo ez egon arren.





Hori dela eta, eskubide honen babesa sustatu behar dugu, informazio gehiegi edo desegokiak errugabetasun-presuntzioan eragina izan baitezake, eta horrek, pertsonaren erreputazio onarekin zerikusia duen heinean, ohorerako eskubidearekin lotuta dago.

Ikuspuntu horretatik uste dugu errugabetasun-presuntzioa babestu behar dela oraindik epaitu ez den edo espedienterik jaso ez duen interesduna gutxietsi dezaketen informazioen aurrean.

Ahotara ekarriko dugu hemen, gainera, lehen aipatutakoa, hau da, hasierako momentutik, 2009ko uztailetik, hain zuzen, barne espediente informatiboa amaitu zenetik, barne txostenei buruzko adierazpen eta berri gehiago egon direla, horren bitartean kontrastaketa prozedurarik egon gabe.

Gogoratu nahiko genuke, era berean, aurrekarietan bildutako hainbat adierazpen eta informazioen edukiak prebarikazio-delitu bat egin zela ziurtasunez iradoki arren, informazio horiek ere adierazi zutela, batetik, gai horren inguruan zalantzak zeudela eta bestetik, ikerketa administrazioak berak antzemandakoaren arabera, dagoeneko egindako azterketak beste azterketa osagarri batzuekin osatzea egokia litekeela.

Adierazpen horietariko batzuk eztabaida politikoa deitzen ohi denaren barruan koka genitzake. Baina, gure ustez, argitaratutako informazioetariko batzuek -komunikabideek haien berri izateko eskaini behar izan direnak- eragina izan dutela ohorerako eskubidean, interesdunaren eta haren errugabetasun-presuntzioaren errespetuan.

Barne informazioak egiaztatu gabeko ondorioak dira, eta bertan, egotzitako pertsonak, bidegabe egotzi bada ere, ez du kontrataketa prozesuak eskaintzen dituen bermeen onurarik izan. Egoera horretan, eta are gehiago denboran luzatzen bada, iritzi publikoari gertakari batzuen bertsio jakin bat -barne txostenen bertsio- eskaintzeak epaiketa paralelo bat egin delako sententzia sor dezake.

Jarduerak garatu diren baldintzetan, iritzi publikoari gertakarien bertsio jakin bat, barne txostenena hain zuzen, eskaintzeko arriskua izan da, eta beraz, egin diren epaiketek, gauzatu ez direnez paraleloan ez diren arren, errugabetasun-presuntzioan eragina izan eta pertsonaren ohorea kalte dezakete.

Hasieratik bertatik, egindako ikerketak hedatu dira interesdunak bere burua defendatzeko esku hartu ahal izan gabe, eta salaketak onartzera behartuta egon da.

Aurreko gogoetei jarraiki lortu ditugu honako





Ondorioak

- a) Lehenik eta behin, kekek aipatzen dituen gertakariak eta informazioaren tratamendua hasi zenetik, interesduna ez dela kontrataketa printzipioak bideratutako espediente baten aurrean egon, eta informazioa, beraz, barne txostenetan bildutako gogoeta eta ondorioetan oinarritu dela.
- b) Barne ordenako jarduera horiek ez dira prozedura amaitutzat jotzen, transkribatu dugun Osasun eta Kontsumo Sailak eskaintako erantzunetik ondoriozta dezakegun moduan. Behar denean, aipatutako prozedura horren hasierari bide emateko besterik ez dute balio. Ondorioz, komunikabideek horien berri izateko, halaber, jarduera horiei buruzko informazioa eskaini behar izan da.
- c) Lehen barne txostena onartu zenetik (2009ko uztaila) jarduerak azkenik fiskaltzara bidaltzeko erabakia hartu zen arte igarotako denborak irregulartasunen zantzuen irmotasun graduaren inguruko zalantzak sortzen ditu. Horrek arreta berezia jartzera behartzen gaitu gaiaren inguruko berriak argitaratzerakoan.
- d) Garrantzi publikoko gaiei buruzko informazioak sor ditzakeen eraginak arintze aldera eta eskubide indibidualen erasana ahalik eta txikiena izan dadin, sail horrek kontrol-mekanismoak gaineratu beharko lituzke, gizartearentzat beharrezkotzat jotzen den informazioa eskaintzean, aipatu dugun garrantzi publiko hori dela eta, babesa merezi duten eskubide eta ondasun multzoak neur ditzaten, bai indibidualak bai gizarte mailakoak.

